

Hazi ez, hertu: gutxiagorekin hobeto bizitzeko

Hazkunde ekonomikoa, planeta mugatuaren neurrietara egokitu nahiko lukeen hazkunde iraunkorra barne, kritikatzetik hasi eta beren bizimodua gutxiagorekin pasatzeko moduan antolatu dutenak asko dira munduan. Produktzioa eta kontsumoa txikiagotzea eskatzen duten jendeak dira.

DÉCROISSANCE KONTZEPTUA nola eman euskaraz? Gaztelaniaz “decrecimiento” aipatzen dute, ingelesez “downsizing”. Gure artera ideia oso aspaldi ez dela iritsi zen, eta euskaraz irakurri ditugu “gutxiagotzea” eta “txikiagotzea”. Bada beste hitz bat oso egokia litzatekeena: “hertzea”. Hertu da puztuzen kontrakoa, zartako bat jasotakoan behatza handitu egiten zaigu eta sendatu ahala hertu.

Hori da hain zuzen ere garapenaren kritiko askok proposatzen dutena. Frantzia aspalditik da ezaguna *Décroissance* aldizkaria, izena mugimenduari hartu diona, giro alternatiboetan ezaguna. Baina garapenaren kritikak halako indarra hartu du, ezen *Courrier International* astekari formalak ere –*Le Monde* egunkariaren enpresarena da, horrela orekatu nahi dute *Le Monde Diplomatique* hilabetekari erradikalagoaren zama– zenbaki berezia eskaini baitio: “Lan gutxiago egin gutxiago irabazi eta hobeto bizitzeko”.

Astekariaren orrietan oihartzaren da irakurlea kontzeptu beraren inguruan hamaika hitz erabiltzen direla munduan. Mugimenduak ere anitzak baitira. Anglosaxoi jendeak *downshiffters* eta *downsizers* izenez bataiatu ditu bizimodu xumeagoaren aldeko apustua egin dutenetako batzuk, mantsozaren edo txikiagotzearen aldekoak alegia.

Kontsumismoaren kritikatik abiatuta egin diren hautu pertsonalak bezala

munduan antolatu diren taldeak oso anitzak dira. Frantsesezko Wikipedian begiratzen baduzu, *décroissance* da kontzeptu politiko, ekonomiko eta sozial bat gaurko kontsentsu politikoari kontrajartzen zaiona, hazkunde ekonomikoa ona dela dioenari, alegia. Txikiagotzearen aldekoek proposatzen dute kontsumoa eta produktzioa gutxitzea, oinarrituz borondatezko xumetasunean horrela baimentzeko klima, ekosistema eta gizakiekiko errespetua.

“Borondatezko xumetasun” horretan –ingelesez *simple living* esaten dute, bizimodu xume edo xaloo–, arakutzen hasiz gero, berriz, munduan ezin konta ahala talde eta iritzi aurkituko dituzu. Hasi erlijio nagusietako profeten aipamenetatik, segi Asisko Frantzisko edo Mahatma Gandhirekin, eta munduko leku askotan diruaren ordez bestelako truke moduak erabiltzen dituzten jardura alternatiboetaraino.

Hautu hau egin dutenetan badira adin eta ofizio guztietakoak, sarritan bizimaila oneko jendeak, lan askorekin asko irabazita gaizki bizitzea baino gutxiago egin, gutxiago gastatu eta bizimodu askeagoa gozatzeko erabakia hartu dutenak. Horie erantsi behar zaizkie azken urteotan prezioen garestitze orokorrekarekin eta azken hilabeteotan gainera krisi ekonomikoaren zantzuarekin estuago bizitzea erabaki dutenak.




Beste batzuek aldaketa egin dute kontzientzia ekologikoak eramanda. Garapen jasangarri edo iraunkorra bezalako kontzeptuek kasik deus berririk ekarri ez dutelakoan, asko dira dagoeneko sinesten ez dutenak eguraldiaren eta ekologiaren krisia konpondu ahal izango direla teknologia berri mirakuluzkoei eta energia berriztagarriei esker, aitzitik, gutxiago kontsumitu beharra dagoela, eta kontsumitu ere bestela.

Ugazabak dio pedalei eragiteko

Kontsumoa gizendu ordez mehetzeko jokabidea mila eratan mamitzen da. Batzuek lan orduen murrizketa hitzartu dute beren enprekin. Edo autoak partikatzen hasi dira besterekin. Jate-txeen ordez taldean antolatutako otordu eta festak deskubritu dituzte beste batzuek. Badira bakarka edo taldeka baratzeak lantzen hasi direnak.

Gainerako alorretan bezala konpromiso sozialari dagokionez ere jarrera ezberdinetako *downsizerak* daude. Askok lan murrizketa baliatzen dute familian gehiago egoteko, haurren hezkuntzan murgiltzeko, edo norbere burua jatzeko. Beste batzuk askoz militanteagoak dira, auzo baratzeak sustatzen dituzte, edo kontsumoaren kontrako aktibismoan eragiten dute, kritika sozial gogorra goan.

Badira joera anarkistakoak, badira kristauak. AEBetako San Francisco



Ezkerreko afixa Frantziako *Décroissance* aldizkariak plazaratu zuen. “Zuk ere parte hartu garapen iraunkorren” dio testuak ironiaz, irudian siderurgiako usina erraldoi baten aurrean bi langile dena berde kolorez tintatzen hastera doazenean. Garapena, delako garapen iraunkorra barne, kritikatzeko duten taldeak mundu osoan ari dira zabaltzen eta klase askotako kanpainak antolatzen dituzte. Eskuineko afixak erakusten du Garapenarekiko Objektore taldeak iazko abuztuan Frantzia antolatutako jardunaldietarako deialdia.

bada Compact izeneko taldea urtean behin ezer erosi gabeko eguna ospatzen hasi eta 2005etik aurrera taldeka antolatzen duena ezer erosi gabe urte oso batez irautea.

Beste mugimendu bat *transition town* edo aldatzen ari diren herriena da. Irlandako Kinsale herrian hasi ziren, permakultura lantzen zuten ikasle batzuek herrian gero eta energia gutxiago kontsumitzeko egindako proiektu batetik partituz.

Udalaren laguntzarekin 15 urterako plana egin dute Kinsalen, elikagaiak, nekazaritza, energia, eraikuntzako materialak... lehen oso hurbil egiten eta orain oso urrunetik garraiatzen den guztia berriro etxean ekoizteko. Mugimendua gero Ingalaterrako Totnes herrira zabaldu zuten, eta

dagoeneko 21 herri daude trantsizioan, gehienak Britainia Handian.

Kontsumoaren kontrako eta txikiagotzearen aldeko mugimenduon estiloak maiteko dituzu ala ez, baina eguneroko bizimoduaz zure buruari zorrotz galdetzeraz eramango zaituzte. Ez herritarrak bakarrik, indar ekonomikoak ere hasi dira kezkatzen kritikak hauen eraso ideologikoarekin.

Eguberrietan Suediako patronalak orri osoko publizitateak paratu ditu egunkari nagusietan, kontsumismoaren kritika egiten dutenei erantzuteko. Haurrentzako ipuin moduan osatutako iragarkiak izan omen dira, kontatuz nola Eguberrietako erosketak boikotatuz gero munduko beste muturrean beharrez ari den langile gizagajoari bere lanpostua kentzen

zaion. Antza, polemika bizia izan da ondoko egunetan Suediako prentsan.

Kontsumoa adikzio moduan psikologo eta psikiatra askok aztertu izan dute. Tim Kasser da horietako bat. Psikologo amerikar honek grafiko berean ipintzen ditu kurba batean irabaziaz biztanleko eta bestean “oso zoriontsu” direla diotenak. Irabazien kurba gero eta gorago doa eta aldiz zoriontsu sentitzen direnenak berdintsu dirau. Kasserrek gehiegizko kontsumoa esplikatzeko du segurtasun faltarekin, publizitateak eta gizarte barruko norgehiagokak jendeengan eragiten duen estatusunarekin.

Baina kontsumoa ez da erabaki edo arazo pribatua soilik. George Monbiot idazle eta ekologista ezagunak idatzi du: “Gobernuek asko maite dute hazkundera, horrek baimentzen dielako desberdintasunak ez borrokatzea. AEBetako Funts Federaleko buru izandako Henry Wallich-ek aitortu zuen hazkundera dela batzuen eta besteen irabazien artean dagoen ezberdintasunaren ordezkoa. Bai, hazkundera protesta itotzen duen droga politikoa da, estatuei baimentzen die aberatsak estuago ez hartzea. Ekonomia zuzenagoa eta iraunkorragoa eraikitzeko oztupoa da hazkundera”.

Monbiotek ustez, hazkundera gelditzeko unea da hau. Baina diskurtso politikoa antolatzen dutenek beren buruetan ez daukatediruz gehiago irabaztea besterik. Zer suntsitua bada goen bitartean, aurrera dirau gero eta gehiago irabazteko lasterketak. ■

www.argaia.com/nethurbil.php helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Konfiantza delako garrantzitsuena

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, etengabe produktu berriak eta zerbitzu berriak bilatzearen bidez.

ZINKUNE OPTIK

Hemani kalea - 20004 DC
e-posta: zinkunegi@eusk
TEL.: 943 420 624

G A R A N T I A